



LIBURUA

Sorginen duintasuna aldarri



DAVID SHANKBONE

SORGINAK, EMAGINAK ETA ERIZAINAK

BARBARA EHRENREICH
ETA DEIRDRE ENGLISH

KATAKRAK, 2019

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

LAN kontu bat dela eta berrirakurri behar izan dut liburu zoragarri hau. Teoria, genealogia eta historia feminista batzen dituen liburu motz honek kritika ugari izango zituelakoan sarean begiratu eta, sorpresa! bakarra aurkitu dut, Irati Majuelok *Berria*-n idatzi zuena.

Katakrakek argitaratutako liburuak bi atal nagusi ditu: argitaletxearen oharra, Silvia Federiciren hitzaurrea eta autoreek beraiek argitaldi bakoitzari egindako sarrera bana batzen dituen lehengo. Federicik euskarazko ediziorako egiten duen hitzaurrean *Caliban eta sorgina* (Elkar, 2017) idazteko liburu honek izan zuen garrantzia azpimarratzen du. Eta liburuaren idazleek Bostongo emakume feministek martxan jarritako ikastaro sorta aipatzen dute; baita *Our Bodies, Ourselves* (1970) liburu iraultzailea ere.

Bigarren atalari dokumentu deitu

zioten Ehrenreich eta Englishek, 60-70 orri inguruz osatutakoa baita irakurriko dugun saiakera. Liburuaren azpituak pista ugari emango dizkigu: *Emakumezko sendalarien historia bat*. Izan ere, 1971n lehenengoz argitaratu zen liburuak ordu arte sorginei buruz eraikitako errelatua auzitan jarri nahi izan zuen, estigma zahar eta deabrukerietatik urruti. Horretarako hiru azpiatal banatzen dira, eta azkenerako ondorioak gorde.

Lehenengo azpiataleko tesi nagusietako bat honako hau da: sorginak emaginak, sendalariak, erizainak zirela frogatu nahi izan zuten eta gaur egun ezagutzen dugun medikuntza ezartzeko genozidioa izenda genezakeena, horrela adierazten dute, adibidez: "*Elizak eta estatuak abian jarri, diruz lagundu eta gauzatutako karpaina ondo antolatuak izan ziren sorgin ehizak* (45.or). Autoreak estatubatuarra

izanik, AEBtan prozesu hau nola garatu zuten aztertzen dute bigarren zatian, eta emagin zein erizain figurei buruz sakonago hausnartzen dute.

Esaldi zuzen eta argiekin josten dute autoreek dokumentua edo saiakera. Hausnarketa sorginen garaiko dokumentu zatiekin eta irudiekin hornitzen dute, eta hala, zer kontaktzen zen, zein den horri buruz dugun iruditeria, eta abar erakusten dute. Liburuak altxor bat da, historian mugarria markatzen duen testu ezinbestekoa. Irakurri ostean, gaur egungo egoerari buruz dugun irakurketa aldarazi dezakeen testu boteretsua da.

Sorginen jakinduria eten izana da kolektibo bezala bizi izan dugun galera handienetako bat eta hori salatzen du testuak. Sorginei duintasuna, beraien lekua, eta errelatua itzultzeko aldarrikapena egiten du. ●